

73/2022 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Uribeko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Uribeko ESiko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen urriaren 5eko 378/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESiko Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko abenduaren 16ko EHAA 250. zk. eta 2021eko abenduaren 23ko BOE 306 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko urtarrilaren 14an amaitu zen.

Uribeko ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 21eko 10/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazioa adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Barne Medikuntzako Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Urduliz, 2022eko otsailaren 21.


URIBEKO ESKO ZUZENDARI GERENTEA,
JESUS MANUEL SUAREZ ROMAY

I. ERANSKINA

**URIBEKO ESI-KO BARNE MEDIKUNTZAKO ATAL SANITARIOKO BURU
LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- JOSÉ GABRIEL ERDOZÁIN CASTIELLA

Baztertuak:

- BAT ERE EZ

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

**URIBEKO ESI-KO BARNE MEDIKUNTZAKO
ATAL SANITARIOKO BURU LANPOSTUA
BALORAZIO BATZORDEA**

Batzordeburua

Titularra: Patricia Rodriguez Landajuela and

Ordezkoa: Isabel Montes Alvaro and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Maria Soledad Azcona Losada and.

Ordezkoa: David Avellanal Legarda jn.

Bigarren batzordekidea

Titularra: Rafael Silvariño Fernándezjn.

Ordezkoa: Josefa Muñoz Sánchez and.

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Koldo Berganzo Corrales jn.

Ordezkoa: Isabel Camargo Ibargarai and.

Laugarren batzordekidea **(IVAPek proposatutakoa):**

Titularra: Fátima Mendoza Gutierrez and.

Ordezkoa: Juan Ugalde Espiñeira and.

Idazkaria:

Titularra: Dña. Amaya de Allende Achalandabaso and.

Ordezkoa: Dña. Karmele Iglesia Rosende and.